# 3.

## **BIZTANLERIAREN EGITURA ETA BILAKAERA**
## ESTRUCTURA Y DINÁMICA DE LA POBLACIÓN

## 3.1 Dinámica de la población en Euskadi y en España en el siglo XX

Las sociedades con tradición y cultura demográfica, no sólo suelen seguir atentas las evoluciones y cambios de los principales sucesos demográficos, sino que también, con el fin de diseñar políticas en el ámbito poblacional (natalistas o malthusianas, migratorias, etc) o en otros limítrofes (vivienda, educación, lingüístico, sanidad…), se plantean el óptimo de efectivos humanos deseable en relación a un espacio o espacios determinados, e incluso sus características. Desde esa perspectiva pueden evaluar la evolución de los movimientos a la vez que actuar más coherentemente en la planificación de las relaciones entre medio humano y físico.

En la medida que no podemos recurrir con facilidad al prisma de lo deseable para evaluar los fuertes cambios de este último siglo, pasaremos a describirlos de forma sinóptica.

Desde una perspectiva histórica podemos diferenciar cuatro grandes etapas en cuanto a la evolución de los fenómenos demográficos en los territorios que hoy conforman la C.A. de Euskadi en los dos últimos siglos.

Una primera fase caracterizada por significativos altibajos de la mortalidad (debidos a epidemias, hambrunas y/o guerras) y por una elevada natalidad, que implica crecimientos moderados de población. Este estadio que se define como de antiguo régimen demográfico, en la C. A. de Euskadi alcanza hasta finales del siglo XIX.

El Censo de 1887 señala la aparición de un largo período de crecimiento, debido tanto a las cifras positivas de saldo vegetativo, como a la llegada de población migrante, al comenzar el desarrollo industrial básicamente en Bizkaia. Esta etapa se prolonga hasta los años 50 del siglo XX, con una inflexión producida por la crisis económica de los años 30, la guerra civil y la postguerra, retroceso sensiblemente más fuerte que en el resto del Estado. Este largo período de expansión conoce tasas de crecimiento entre el 1 y el 1,5%.

## 3.1 Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren bilakaera XX. mendean

Demografi arloko tradizioa eta kultura duten gizarteek arretaz jarraitzen dituzte demografi gertakari nagusien bilakaera eta aldaketak; baina, horretaz gain, biztanleri eremuko (natalistak, malthusiarrak, migratzaileak, etab.) edo hurbileko eremuko (etxebizitza, hezkuntza, hizkuntza, osasuna,…) politikak zehazteko asmoz, galdetzen diete euren buruei zein litzatekeen biztanle-kopuru hoberena alor jakin batean edo batzuetan, eta are haiek nolakoak izan behar duten. Ikuspegi horretatik, gorabeheren bilakaera balioetsi dezakete, eta aldi berean, koherentzia handiagoz planifika ditzakete gizagunearen eta naturagunearen arteko harremanak.

Baina, zaila da zehaztea zein litzatekeen kopuru egokiena, azken mende honetako aldaketa handiak balioesteko; hori dela eta, labur-labur azalduko ditugu aldaketa horiek.

Ikuspegi historiko batetik, lau aldi nagusi bereiz ditzakegu, gaur egun Euskal AE osatzen duten lurraldeetan azken bi mendeetan demografi gertakariek izan duten bilakaerari dagokionez.

Lehen aldi batean, heriotza-tasek gorabehera nabarmenak (izurriteek, goseteek edo gerrateek eraginak) izan zituzten, eta jaiotza-tasak altuak ziren; horren eraginez, biztanleri hazkundeak nahiko neurritsuak ziren. Aldi hori (demografi erregimen zaharra izenekoa) XIX. mendearen amaiera arte iritsi zen Euskal AEn.

1887ko zentsuak hazkunde-aldi luze baten hastea adierazten du; izan ere, saldo begetatiboaren zenbakiak positiboak izan ziren, eta kanpotik biztanle asko etorri zen, industriaren garapena hasi zelarik (batez ere, Bizkaian). Aldi hori XX. mendeko 50eko urteak arte luzatu zen, eta motelaldi bat izan zuen 30eko urteetan, ekonomi krisia, gerra zibila eta gerraondoa zela eta. Moteladi hori Estatuko beste erkidego batzuetan baino askoz handiagoa izan zen. Hazkunde-aldi luze horrek %1 eta 1,5en arteko hazkunde-tasak izan zituen.

**IZATEZKO BIZTANLERIAREN ETA ZENTSU ARTEKO HAZKUNDE-TASEN (ZHT) BILAKAERA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ETA ESPAINIAN**

EVOLUCIÓN DE LA POBLACIÓN DE HECHO Y DE LAS TASAS DE CRECIMIENTO INTERCENSAL (TCI) EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y EN ESPAÑA

| | **EUSKAL AE** C.A. DE EUSKADI | | **ESPAINIA** ESPAÑA | |
|---|---|---|---|---|
| **Urtea** / Año | **Biztanleria** Población | **%ZHT** TCI% | **Biztanleria** Población | **%ZHT** TCI% |
| **1787** | 308.157 | – | 10.268.150 | – |
| **1860** | 429.139 | 0,45 | 15.645.072 | 0,58 |
| **1877** | 450.699 | 0,29 | 16.622.100 | 0,36 |
| **1887** | 510.408 | 1,25 | 17.549.608 | 0,54 |
| **1900** | 603.596 | 1,30 | 18.616.630 | 0,46 |
| **1910** | 673.788 | 1,11 | 19.990.909 | 0,71 |
| **1920** | 766.775 | 1,30 | 21.388.551 | 0,68 |
| **1930** | 891.710 | 1,52 | 23.677.095 | 1,02 |
| **1940** | 955.764 | 0,70 | 26.014.278 | 0,95 |
| **1950** | 1.061.240 | 1,05 | 28.117.873 | 0,78 |
| **1960** | 1.371.654 | 2,60 | 30.582.936 | 0,84 |
| **1970** | 1.878.636 | 3,20 | 33.956.376 | 1,05 |
| **1975** | 2.072.430 | 1,98 | 36.026.319 | 1,19 |
| **1981** | 2.134.967 | 0,58 | 37.674.594 | 0,87 |
| **1986** | 2.125.922 | – | 38.891.313 | – |
| **1991** | 2.109.009 | – | 39.433.942 | – |
| **1996** | 2.107.307 | – | – | – |

Durante esos 60 años la C.A., como podemos ver en el cuadro 3.1.1, en muchos casos duplica las tasas de crecimiento intercensal obtenidas para España. Además, estas últimas tasas crecen muy lentamente hasta bien entrado el siglo XX, debido a saldos migratorios negativos y al retraso en la mejora de la mortalidad.

La tercera etapa, más breve que las anteriores (1950-1975), viene marcada por el inicio de una nueva fase expansiva con caracteres de explosión demográfica, en la que se llega a superar tasas del 3% de crecimiento intercensal. Un saldo o balance migratorio muy positivo, junto con un incremento sensible de la natalidad debido, entre otras causas, a una pirámide de población jóven, explican este boom poblacional.

60ko urteetan, Euskal AEk, 3.1.1 taulan ikus dezakegunez, Espainiari buruz lortutako zentsu arteko tasak bikoiztu zituen kasu askotan. Gainera, azken tasa horiek oso astiro hazi ziren XX. mendearen erdialdea igaro arte, migrazio-saldo negatiboengatik eta heriotza-tasen hobetzea atzeratzeagatik.

Hirugarren aldia aurrekoak baino laburragoa da (1950-1975), eta horren ezaugarri nagusia hazkundealdi berri baten hasiera da: hazkundealdi berezia, demografi leherketa mailakoa; izan ere, zentsu arteko hazkundeak %3ko tasak gainditzen ditu. Migrazio-saldoa edo -emaitza oso positiboa zen, eta jaiotza-tasak nabarmen gehitu ziren, besteak beste, biztanleri piramidea oso gaztea izateagatik. Horrek guztiak azaltzen du biztanleriaren "boom"a.

Tasas de crecimiento intercensal 1900-1996
Población de hecho (%)

Gráfico **3.1.1 Grafikoa**

**Zentsu arteko hazkunde-tasak 1990-1996**
**Izatezko biztanleria (%)**



En España, en este cuarto de siglo se consigue llegar a crecimientos intercensales ligeramente superiores al 1%, pero en ningún caso se puede hablar de variaciones violentas de los efectivos poblacionales, como se puede apreciar en el gráfico 3.1.1.

Espainian, mende-laurden horretan, %1en gainetiko zentsu arteko hazkundeetara iristea lortzen da; baina ez daiteke esan biztanle-kopuruak bortizki aldatzen direnik, 3.1.1 grafikoan ikus daitekeenez.

Los grandes cambios de mediados del 70: crisis energética, recesión económica, procesos de adecuación y reestructuración industrial, y las no menos influyentes modificaciones políticas y socioculturales, dan inicio al cuarto período llamado de 'crisis demográfica'.

70eko urteetako erdialdeko aldaketa handiak: energia-krisialdia; ekonomia-atzeraldia; industriako egokitze- eta berregituratze-prozesuak, eta politika, gizarte eta kultura arloko aldakuntzak. Horiek guztiek eragina dute, eta laugarren aldia hastea eragiten dute, "demografi krisiaren" aldia.

El País Vasco, de ser un espacio con movimientos poblacionales de carácter expansivo, prácticamente desde los 200 últimos años, llega a una situación definida por un descenso de la nupcialidad, de la natalidad, de mantenimiento de la mortalidad (con dos tendencias contrapuestas desde el punto de vista de la mortalidad bruta: mejora de la esperanza de vida e incremento del envejecimiento de la población), además de un saldo migratorio negativo a partir de 1977.

Euskal AEn, azken 200 urteez geroztik, biztanle-mugimendu hedakorreko gune bat izan da. Orain, aldiz, gauzak aldatu egin dira, eta egoera bestelakoa da: ezkontza- eta jaiotza-tasek behera egin dute, eta heriotza-tasek ez gora ez behera (heriotza-tasa gordinei dagokienez, bi joera kontrajarri azaltzen dira: bizi-itxaropena hobetu egin da, eta biztanleriaren zahartzea gehitu); gainera, migrazio-saldoa negatiboa da, 1977az geroztik.

Si los tres primeros fenómenos nos colocan a la altura de la mayoría de las sociedades industrializadas en cuanto a evolución demografica, la pérdida poblacional por saldo migratorio, puede considerarse en gran medida como resultado de una situación económica restrictiva. No hay que descartar en el conjunto del saldo el peso la emigración por retorno a los lugares de procedencia una vez finalizada la vida laboral, ya sea por razones naturales de llegada a la edad de jubilación o por acceder a esta de forma anticipada.

Lehen hiru gertakariek, demografi bilakaerari dagokionez, gizarte industrializatu gehienen mailan jartzen gaituzte; migrazio-saldoagatiko biztanle-galtzea, aldiz, ekonomi egoera atzerakor baten ondoriotzat har daiteke neurri handi batean. Saldoaren guztizkoan, ez daiteke baztertu itzuleragatiko emigrazioaren pisua: lan-bizitza amaitzen denean (berezko arrazoiengatik, erretiro-adinera iristeagatik, edo aldez aurretik erretiratzeagatik), zenbait etorkin jatorrizko herrietara itzultzen dira.

Tampoco, con respecto a las otras variables demográficas, debemos caer en el determinismo económico; mejoras técnicas en el mundo de la reproducción humana –perfeccionamiento y universalización de las técnicas contraceptivas, fuerte descenso de la mortalidad infantil–, junto a las mejoras evidentes en el ámbito socio-económico –en las condiciones de vida en general y sanitarias en particular, creciente incorporación de la mujer al trabajo fuera de casa y su progresiva cualificación– han variado los resultados del movimiento natural de la población.

Demografi arloko beste aldagai batzuei dagokienez ere ez dugu determinismo ekonomikoan erori behar: giza ugalketaren arloan hobekuntza tekniko asko izan dira (antisorkuntzako teknikak hobetu eta orokortzea, haurren heriotza-tasak asko jaistea); gizarte eta ekonomia arloan ere hobekuntza nabarmenak gertatu dira (bizi-baldintza, oro har, eta, batez ere, osasun-baldintzak hobetu egin dira); gero eta emakume gehiago ari da sartzen lan-munduan, eta haien prestakuntza hobetu egin da. Horrek guztiak biztanleriaren berezko mugimenduaren emaitzak aldatu ditu.

Asociados a esos cambios, sin que podamos precisar si como causa o efecto, están los nuevos valores: aspiraciones a mejoras materiales, individualismo-desarrollo personal, percepción social diferente de los grupos de edad, secularización, universalización, etc. Todo esto ha producido la aparición o incremento de nuevas formas de familia y/o pareja, muchas de ellas no prolíficas, así como ha trastocado las funciones y papeles de las personas en las familias de carácter más tradicional, comprendidas bajo este concepto las nucleares, y no las extensas como se venía considerando hasta ahora.

Aldaketa horiei lotuta, balio berriak daude (hala ere, ez dezakegu zehaztu kausa edo efektu izan diren): jendeak hobekuntza materialak nahi ditu; indibidualismoa-garapen pertsonala; adin taldeak beste era batera ikusten ditu gizarteak; sekularizazioa; unibertsalizazioa, etab. Horren guztiaren eraginez, familia- edo bikote-mota berriak agertu edo gehitu dira; horietako asko ez dira ugariak, eta, era berean, jendeak familia ohikoagoetan zituen zereginak edo paperak ere aldatu egin dira. Kontzeptu horretan, familia nuklearrak sartzen dira, eta ez orain arteko familia zabal haiek.

Como se puede ver en el gráfico 3.1.1, este período tiene diferentes ritmos para la C.A. de Euskadi y para España, aunque la tendencia sea similar. En la primera mitad de

3.1.1 grafikoan ikus daitekeenez, aldi horrek erritmo desberdinak ditu Euskal AEn eta Espainian; joera, dena dela, berdintsua da. 70eko hamarkadako lehen erdialdean,

la década de los 70 la C.A. alcanza su punto de inflexión en el crecimiento, pasando de un 3,2% de 1960 a 1970, acentuándose la disminución de sus ritmos de crecimiento en el siguiente quinquenio, pasando de casi un 2% de tasa de crecimiento intercensal entre 1970 y 1975, al 0,6% de 1975 a 1981. A partir de este último año ya solo detectaremos decrecimientos en los efectivos humanos. En España, el punto de inflexión se retrasa cinco años aproximadamente y la inversión de la tendencia resulta menos acusada: de un 1,2% entre 1970-1975 al 0,9% entre 1975 y 1981. A pesar de que el crecimiento tiende a aproximarse al 0%, en los siguientes 15 años se mantiene positivo.

Resumiendo, podemos decir que la C.A. de Euskadi duplicó su población de 1800 a 1900, pasando de 300.000 a 600.000 habitantes, lo volvió a hacer en poco más de 50 años, y una vez más entre la década de los 50 y 1975. En el conjunto de España, en el siglo XIX no se llega por poco a la duplicación –de 10,2 millones a 18,6–, consiguiéndose ampliamente de nuevo a lo largo del XX –de 18,6 a 39,6 millones de personas–.

Desde esta perspectiva histórica, y como se puede ver bien en el gráfico citado, el decrecimiento poblacional del último cuarto de siglo en la C.A. de Euskadi parece el contrapunto a la 'crisis de crecimiento' de los 25 años anteriores, en que de un millón de personas se pasó a dos. Utilizando el símil económico, se puede decir que también en el ámbito poblacional se está dando un ajuste de efectivos, en el marco de una sociedad más malthusiana, con valores nuevos y que sigue inmersa en un proceso de redefinición de sus estructuras productivas.

hazkundeak inflexio-puntua iritsi zuen, eta %3,2ra igo zen 1960tik 1970era. Hazkunde-erritmoen moteltzea areagotu egin zen hurrengo bosturtekoan: zentsu arteko hazkunde-tasa ia %2koa zen 1970 eta 1975 artean; 1975etik 1981era, berriz, %0,6koa. Azken urte horretatik aurrera, biztanleak jaitsi baino ez dira egingo. Espainian, inflexio-puntua bost urte atzeratuko da gutxi gorabehera, eta joera-aldaketa ez da hain nabarmena izango: 1970 eta 1975 artean, %1,2koa zen; 1975 eta 1981 artean, berriz, %0,9koa. Nahiz eta hazkundeak 0rantz jotzen duen, hazkundea oraindik ere positiboa izango da hurrengo hamabost urteetan.

Laburbilduz, esan dezakegu ezen Euskal AEk bere biztanleria bikoiztu zuela 1800tik 1900era, eta 300.000 biztanletik 600.000ra igo zela; beste berrogeita hamar urteetan, berriro bikoiztu zuen, eta berriro bikoiztu zuen 50eko hamarkadaren eta 1975aren artean. Espainia osoan, XIX. mendean, ez zen oso gutxigatik lortu bikoizketa (10,2 milioitik 18,6 milioira), eta XX. mendean zehar, berriro lortu zen bikoizketa (18,6 milioitik 39,6 milioira).

Ikuspegi historiko horretatik, eta aipatutako grafikoan ongi aski ikusten denez, azken mende-laurdenean Euskal AEn gertatu den biztanle-jaitsiera, dirudienez, aurreko hogeita bost urteetako "hazkunde-krisiaren" kontrapuntua da, milioi bat biztanletik bi milioi biztanlera igo baitzen. Ekonomia arloko irudi bat erabiliz, esan daiteke biztanleria arloan ere biztanleak "doitzen" ari direla, eta gizartea gero eta malthusiarragoa dela: balio berriak daude gizartean, eta produkzio-egiturak berriz definitzeko prozesu batean dago murgilduta.

## 3.2 Evolución de la población 1986-1996

El 1 de mayo de 1996, según los resultados definitivos del Padrón Municipal, la Comunidad Autónoma contaba con 2.098.055 personas residentes (población de derecho). Esto supone una disminución de 38.000 personas en los últimos 10 años, pero repartida de una forma desigual: 32.000 personas se pierden entre 1986 y 1991, y tan solo 6.000 en los últimos 6 años. Se puede hablar de una reducción fuerte del ritmo de pérdida poblacional si tomamos como referencia las cifras padronales.

No obstante, la dinámica poblacional difiere sustancialmente si nos detenemos en la evolución por Territorios: Álava acumula un crecimiento del 5% en el último decenio –14.000 personas–, frente a una pérdida del 3% de Bizkaia –39.000 personas– y del 2% de Gipuzkoa –13.000 personas menos–.

Los ritmos y las tendencias de evolución de la población por Territorios también presentan variaciones notables: Álava aumenta el ritmo de crecimiento en el último quinquenio –el 62% del aumento se produce entre 1991 y 1996–, Bizkaia ralentiza el decrecimiento –el 60% de la

## 3.2 Biztanleriaren bilakaera 1986-1996

1996ko maiatzaren 1ean, udaletako biztanle-erroldaren behin-behineko emaitzen arabera, 2.098.055 biztanle zituen Euskal Autonomia Erkidegoak (zuzenbidezko biztanleria). Horrek esan nahi du biztanle-kopurua gutxitu egin dela azken 10 urteetan (-38.000); gutxitze hori honela banatu da: 1986 eta 1991 artean, 32.000 lagun galdu ziren; azken sei urteetan, aldiz, 6.000 baino ez. Beraz, erreferentziatzat erroldako kopuruak hartzen baditugu, esan daiteke biztanle-galtzearen erritmoa asko moteldu dela.

Nolanahi ere, biztanleriaren bilakaera asko aldatzen da lurralde batetik bestera: Arabak %5eko hazkundea pilatu du azken hamarkadan (14.000 lagun); Bizkaiak (%3) eta Gipuzkoak (%2), aldiz, galerak izan dituzte: lehenak 39.000 lagun galdu ditu, eta bigarrenak, 13.000.

Biztanleriaren bilakaeraren erritmoek eta joerek ere alde handiak izan dituzte, lurralde batetik bestera: Araban, hazkunde-erritmoa bizkortu egin da azken bosurtekoan –igoeraren %62 1991 eta 1996 artean gertatu zen–; Bizkaian, berriz, moteldu egin da beherapena –gutxitzearen

disminución se concentra entre 1986-1991– y en Gipuzkoa la disminución se concentra sólo entre 1986-1991, estabilizando su población con un crecimiento 0.

%60 1986-1991 aldian pilatu zen–; Gipuzkoan, azkenik, gutxitzea 1986-1991 aldian bildu zen bakarrik, eta horko biztanleria 0 hazkundera iritsi da.

Por capitales tenemos que Vitoria-Gasteiz crece un 7,2% –15.000 efectivos–, con lo que se lleva todo el incremento indicado más arriba para Álava y señalándose pérdidas poblacionales en el resto del Territorio; Bilbao pierde un 6% –23.000 personas– y Donostia-San Sebastián gana un 1% –casi 2.000 personas–.

Hiriburuei dagokienez, Vitoria-Gasteiz %7,2 hazi da (15.000 lagun). Beraz, hor bildu da Araba osoko gehikuntza –arestian aipatu dugu gehikuntza hori–; lurralde horretako gainerako udalerrietan, aldiz, behera egin du biztanle-kopuruak. Bilbok, bestalde, %6 galdu du (23.000 lagun), eta Donostiak %1 irabazi du (ia 2.000 lagun).

De los municipios de tamaño mediano o grande tenemos cuatro que parecen resultar atractivos para la población, ya que han rondado o superado el 10% de incremento poblacional : Zarautz , Galdakao, Leioa y Durango.

Tamaina ertaineko edo handiko udalerrien artetik, horietako lau erakargarri bide dira biztanleentzat, zeren %10 inguruko biztanle-gehikuntzak izan baitituzte: Zarautz, Galdakao, Leioa eta Durango.

En la banda contraria, y con una reducción de efectivos próxima al 10%, se encuentran Rentería y Eibar en Gipuzkoa y Sestao y Barakaldo en Bizkaia.

Beste aldean, %10 inguruko biztanle-galerak izan dituzten udalerrien artean, honako hauek aipatu behar dira: Gipuzkoan, Errenteria eta Eibar, eta Bizkaian, Sestao eta Barakaldo.

Otros municipios con pérdidas, aunque no tan notables, son: Santurtzi, Basauri, Arrasate-Mondragón, Erandio y Llodio.

Beste udalerri batzuek ere (Santurtzi, Basauri, Arrasate, Erandio eta Laudio) galerak izan dituzte, baina ez hain handiak.

Evolución de la población por municipios 1986-1996 (%) — Mapa **3.1.1** **Mapa** — **Biztanleriaren bilakaera udalerrika 1990-1996 (%)**



De la lectura del mapa de evolución de la población entre 1986 y 1996, se desprende el asentamiento de un modelo diferente de ocupación espacial en relación a anteriores décadas. El entorno conurbano de las tres capitales crece simétricamente a ellas –Vitoria-Gasteiz y Donostia-San Sebastián– o cuando pierden habitantes, se relocalizan en esas áreas limítrofes –Bilbao y los municipios de la comarca Plentzia-Mungia–.

Biztanleriak 1986 eta 1996 artean izandako bilakaerari buruzko mapa irakurtzetik, ondorio hau atera daiteke: aurreko hamarkaden aldean, lurraldea okupatzeko beste eredu bat finkatzen ari da. Hiru hiriburuetako inguru konurbanoa simetrikoki hazten ari da, hiriburu horien aldean –Vitoria-Gasteiz eta Donostia– edo biztanleak galtzen dituztenean, eremu mugakideetan kokatzen dira biztanle horiek –Bilbo eta Plentzia-Mungia eskualdeko udalerriak–.

Problemas de espacio y/o de suelo edificable, los altos precios de la vivienda en grandes núcleos urbanos y el cambio en los estilos de vida pueden estar detrás de estas nuevas pautas de localización poblacional, que además son comunes a las grandes urbes de los países desarrollados.

Ez dago tokirik edo lurrik etxebizitzak eraikitzeko; hirigune handietan garestiak dira etxebizitzak, eta bizi-estiloak aldatzen ari dira. Horiek guztiak bide daude biztanleria kokatzeko eredu berri horien atzean; gainera, herrialde garatuetako hiri handi guztietan errepikatzen dira eredu horiek.

Tampoco son ajenos a estos cambios la mejora en las infraestructuras y medios de comunicación, así como las modificaciones en la composición y estructura de la fuerza laboral y su localización espacial (eventualidad, nuevas formas de trabajo, aumento de jubilaciones anticipadas etc.).

Azpiegituretan eta komunikabideetan izan diren hobekuntzek ere badute zerikusirik aldaketa horietan, bai eta lan-indarraren osaketan eta egituran eta lan-indarraren lurralde-kokapenean izan diren aldakuntzen ere (ez-finkotasuna; lan egiteko bide berriak; erretiro aurreratuak igotzea, etab.)

El cambio en el uso estacional de una segunda residencia, pasando a ser residencia principal o a ocuparse una mayor parte del año, fenómeno muy relacionado con el progresivo envejecimiento de la población y con la migración de retorno, también puede influir en el incremento de efectivos en zonas rurales o costeras.

Lehen, bigarren etxebizitza urte-sasoi jakin batean baino ez zen erabiltzen; orain, aldiz, etxebizitza nagusi bihurtu da, edo urteko hilabete gehiagotan okupatzen da. Hori oso lotuta dago biztanleriaren zahartzearekin eta itzulerako migrazioarekin, eta horrek ere eragina izan dezake landa- eta kosta-guneetan biztanleak gehitu izanarekin.

A parte del declive poblacional en las zonas en donde los ajustes económicos han sido más fuertes (Margen Izquierda, Bajo Deba, Duranguesado, etc.), el proceso de despoblamiento rural continua, aunque con algunas precisiones; de 111 municipios de menos de 1.000 que había en la C.A. de Euskadi en 1996, en 30 se mantiene o aumenta la población –en total suman 13.000 habitantes y aumentan en el decenio un 8% de media–, y en 71 se pierde población –en total suman 34.000 habitantes y se pierde un 9% de media–; los diez municipios restantes son desanexiones realizadas entre 1986 y 1996, agrupando en la última fecha de referencia censal a 3.000 habitantes, y en los que, en conjunto se da una cierta estabilidad.

Biztanleriak gainbehera egin du ekonomi doitzeak gogorragoak izan diren guneetan (Ibar Ezkerra, Deba Beherea, Durangaldea, etab.). Hori alde batera utzita, landaguneak jendez husten jarraitzen du. Dena dela, honako hau aipatu behar da: 1996an Euskal AEn zeuden 1.000 biztanletik beherako 111 udalerrietatik, 30etan biztanleria ez da ez jaitsi ez igo, edo igo egin da (guztira, 13.000 biztanle dira, eta hamarkada horretan %8 igo dira batez beste); 71tan, biztanleak galdu dira (guztira, 34.000 biztanle dira, eta %9 galdu da batez beste); beste hamar udalerriak 1986 eta 1996 artean egindako desanexioak dira; zentsu erreferentziako azken data horretan, 3.000 biztanle biltzen zituzten, eta, oro har, biztanleriak ez du ez gora ez behera egin.

El aumento, o incluso el mantenimiento de las cifras poblacionales en esos 30 (40 si consideramos las desanexiones) municipios pequeños, en muchos casos reafirma la hipótesis de la 'reconquista del área rural', y la tendencia a una mayor separación entre muncipios de residencia –dormitorio– y de trabajo, estudios, compras, ocio, etc. Toman más visos de realidad las nuevas definiciones de la ciudad que hacen los urbanistas, que la entienden como el espacio que comprende el desplazamiento de ida y vuelta al trabajo, estudio etc. independientemente de qué medio de transporte se utilice, por parte de la mayoría de la población de un territorio.

Beraz, 30 udalerri txiki horietan (40tan, desanexioak kontuan hartuz gero), biztanle-kopuruek igo egin dira, edo ez dira ez jaitsi ez igo. Horrek, zenbait kasutan, "landa-gunearen birpopulaketa"ri buruzko hipotesia berresten du, eta bizitzeko udalerriak -lotarakoak- eta laneko, ikasteko, erosteko, asialdirako, etab.erako udalerriak gero eta gehiago ari direla bereizten. Gero eta indar handiagoa hartzen ari dira urbanistek hiriari buruz egin ari diren definizioek: hiria, urbanista berri horientzat, lantokirako, ikastetxerako, etab.erako joan-etorria barnean hartzen duen gunea da, lurralde bateko biztanle gehienek zein garraiobide erabiltzen den alde batera utzita.

## 3.3 Evolución de la estructura por edad y sexo

Sabemos cúantos somos y el ritmo de variación poblacional en el último decenio 1986-1996. Vamos a detenernos en los cambios de la estructura y características de la población.

La composición por edad y sexo, al igual que los anillos del tronco de un árbol, muestra la configuración y el resumen de la historia demográfica de una sociedad; casi todos los acontecimientos que marcan una época quedan recogidos en la pirámide de edad: guerras, crisis o bonanzas económicas, movimientos de población, mejoras en el campo de la salud, valores y hábitos generales de la población, etc.

Por otra parte, define y sirve para concretar en el futuro los grupos de población más significativos según el lugar que ocupan las personas en el conjunto de una sociedad: formación y composición familiar, fecundidad, relación con el estudio, con la actividad económica y con la movilidad espacial; ninguna de estas áreas de desarrollo humano se pueden entender o analizar –prever– con precisión sin tener en cuenta la estructura por edad y sexo.

## 3.3 Biztanleriaren bilakaera adinka eta sexuka

Badakigu zenbat garen eta biztanle-kopurua nolako erritmoz aldatu den azken hamarkadan (1986-1996). Ikus dezagun orain nola aldatu diren biztanleriaren egitura eta ezaugarriak.

Gizarte bat adinka eta sexuka nola osatzen den aztertzen badugu, ikusiko dugun biztanle-taldeak nolako egitura duen eta historian zehar nolako bilakaera izan duen. Adin-piramidea zuhaitz baten enborraren uztaiak bezalakoa da, zeren hor geratzen baitira irarrita garai bateko gertakari guztiak: gerrateak, ekonomi krisialdiak eta oparoaldiak, biztanleriaren mugimenduak, osasun arloko hobekuntzak, biztanleriaren balio eta aztura orokorrak, etab.

Bestalde, etorkizunean izango diren biztanle-talde esanguratsuenak zehazteko ere balio du, pertsona bakoitzak gizarte batean betetzen duen tokiaren arabera: familien eraketa eta osaera, jaiotze-tasak, ikasketekiko lotura, ekonomi jarduerarekiko lotura, lurralde-mugikortasunarekiko lotura. Giza garapenaren arlo horietarik ezein ez daiteke zehatz-mehatz ulertu edo aztertu –aurreikusi– adinkako eta sexukako egitura kontuan hartu gabe.

3.3.1 — BEE / E.P.V. — 1996 — %

**BIZTANLERIAREN BANAKETA ADIN-TALDE NAGUSIETAN (EAE 1991-1996; EUROPAKO BESTE HERIALDEAK 1990-1996)**

DISTRIBUCIÓN DE LA POBLACIÓN EN GRANDES GRUPOS DE EDAD (C.A.E. 1991-1996; RESTO DE PAÍSES DE EUROPA 1990-1996)

| | EAE C.A.E. | E | EUR 15 | P | IRL | D | FR | I | UK | NL | B | L | DK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1996** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| <20 | 21,2 | 24,3 | 23,7 | 25,4 | 33,5 | 21,5 | 26,0 | 21,0 | 25,3 | 24,3 | 24,0 | 23,9 | 23,5 |
| 20-64 | 63,9 | 60,3 | 60,7 | 59,9 | 55,0 | 62,9 | 58,8 | 62,2 | 58,9 | 62,4 | 60,0 | 62,0 | 61,3 |
| ≥65 | 14,9 | 15,4 | 15,6 | 14,7 | 11,5 | 15,6 | 15,2 | 16,8 | 15,7 | 13,3 | 16,0 | 14,1 | 15,1 |
| **1990-1991** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| <20 | 25,2 | 28,5 | 25,5 | 29,3 | 37,0 | 20,9 | 27,7 | 24,4 | 25,9 | 25,7 | 24,8 | 23,2 | 24,3 |
| 20-64 | 62,0 | 58,3 | 60,1 | 57,6 | 51,7 | 63,9 | 58,4 | 61,2 | 58,6 | 61,6 | 60,5 | 63,4 | 60,2 |
| ≥65 | 12,8 | 13,2 | 14,4 | 13,1 | 11,3 | 15,2 | 13,9 | 14,4 | 15,5 | 12,7 | 14,7 | 13,4 | 15,5 |

**Iturria /** Fuente**:** Statistiques Démographiques 1991 y 1997. Eurostat.

Si, como vemos en el cuadro 3.3.1, analizamos la composición por grandes grupos de edad, tenemos que una de cada cinco personas en la C.A.E. tiene menos de 20 años, algo más de una de cada siete 65 ó más años y algo menos de dos de cada tres se sitúan en la edad adulta.

Para poder valorar esta distribución, hemos realizado una selección de países de la Unión Europea –formaban la C.E.E. en 1990, salvo Grecia, para la que no se disponía de información– con esos mismos datos para 1996 y 1991.

3.3.1 taulan ikusten dugunez, adin-talde handien araberako osaera aztertzen badugu, ikusiko dugu EAEn bost biztanletik bat 20 urtetik beherakoa dela; zazpitik bat baino gehixeago, 65 urte edo gehiagokoa, eta hirutik bi baino gutxixeago, helduen taldekoak.

Banaketa hori neurtu ahal izateko, Europako Batasuneko herrialde batzuk hautatu ditugu –1990ean, EEE osatzen zutenak, Grezia izan ezik, ez baitzegoen horri buruzko daturik–. Datu berdinak erabili ditugu 1996 eta 1991rako ere.

Si comparásemos con los 15 países de la U.E. en 1996, (Austria, Grecia, Finlandia, y Suecia que no aparecen incluidos en el Cuadro 1), podemos ver como la C.A.E. ostenta el récord de menor porcentaje de jóvenes.

Italia sería el país más próximo con un 21%, seguida de Alemania con un 21,5%. No obstante, nos separan casi tres puntos del conjunto de la U.E. y casi cuatro del conjunto de España.

Navarra, aproximándose a las cifras de la C.A.E., repite el porcentaje de Alemania: 21,5%.

EBk 1996an zituen 15 herrialdeekin alderatzen badugu (Austria, Grezia, Finlandia eta Suedia ez dira agertzen 1. taulan), ikus dezakegu nola EAE den gazte-kopuru txikiena duen herrialdea.

Italia da guregandik hurbilen dagoen herrialdea (%21), eta ondoren Alemania dator (%21,5). Hala ere, hiru puntu ateratzen dizkigu EB osoak, eta ia lau, Estatuak.

Nafarroa EAEko kopuruetatik hurbil dago, eta Alemaniaren portzentaia bera du: %21,5.

Evolución de las tasas interanuales de crecimiento de población para los grandes grupos de edad. 1970-1996.
(Números índice; 1970=100)

Gráfico **3.3.2 Grafikoa**

**Biztanleriaren urte arteko hazkunde-tasak adin-talde nagusietan. 1970-1996**
**(Zenbaki indizeak; 1970=100)**




Este porcentaje, ¿indica que vivimos en una sociedad especialmente envejecida?. Si comparamos el porcentaje de personas de 65 y más años podemos ver como no resulta ser significativamente diferente al que arroja el conjunto de la U.E., ni al de España, incluso podemos decir que está tres décimas por debajo del primero y una del segundo. No sería el caso de Navarra, con un 17,4% y que se acerca al récord de Suecia con un 17,5%.

Así pues, nos encontramos con una sociedad con un índice de adultez o plenitud –el 64%– significativamente más alto que en el resto de países analizados. El país más próximo sería Alemania con un 62,9%, seguido de Italia con un 62,2%.

Si analizamos la evolución de los índices en el último decenio, vemos que de un 30,2% de jóvenes en 1986, pasamos a un 25,2% en 1991, perdiéndose casi otros cinco puntos en el segundo quinquenio; en cifras absolutas podemos decir que la C.A.E. en diez años ha disminuido su

Ehuneko horrek zer adierazten du?, beste batzuen aldean, gizarte zahartuago batean bizi garela? 65 urte eta gehiagoko biztanleen ehunekoa alderatzen badugu, ikusiko dugu ez dela oso desberdina, EB osokoaren edo Estatu osokoaren aldean; izan ere, kopuru hori hiru hamarren dago lehenengoaren azpitik, eta bat, bigarrenaren azpitik. Ez da gauza bera gertatzen Nafarroarekin (%17,4), horko ehunekoa marka onenetik hurbil baitago (Suedia, %17,5).

Beraz, gure gizartearen heldutasun- edo betetasun-maila aztertu ditugun gainerako herrialdeena baino askoz handiagoa da (%64). Guregandik hurbilen dagoena Alemania da (%62,9); ondoren, Italia dago (%62,2).

Maila horiek azken hamarkadan izan duten bilakaera aztertzen badugu, ikusiko dugu gazteen kopurua asko jaitsi dela: 1986an, %30,2 ziren; 1991n, berriz, %25,2 baino ez. Bigarren bosturtekoan ere ia beste bost puntu galdu dira. Beraz, esan dezakegu zenbaki absolutuetan EAEk

cifra de jóvenes en 215.000 individuos, mientras que ha aumentado en 103.000 la de personas de 65 y más años –cinco puntos en el decenio–.

Del grupo de personas de más edad podemos extraer el conjunto de las de 85 y más años, utilizado para calcular el sobreenvejecimiento de una sociedad; con esas edades teníamos 15.000 personas en 1986 y casi el doble en 1996, 28.500. No obstante, representa el 1,3% de la población, frente al 1,8% de Navarra, el 1,6% de la U.E. o el 1,4% de España.

215.000 gazte galdu dituela hamar urtetan; 65 urte eta gehiagokoak, aldiz, 103.000 igo dira (bost puntu hamarkada batean).

Adin zaharreneko taldetik, 85 urte eta gehiagokoen taldea atera dezakegu, zeren maila hori gizarte baten gainzahartzapena neurtzeko erabiltzen baita. Adin horietan, 15.000 lagun genituen 1986an; 1996an, berriz, ia bi aldiz gehiago, 28.500. Dena dela, talde horrek biztanleriaren %1,3 hartzen du; Nafarroan, berriz, %1,8; EBn, %1,6, eta Estatuan, %1,4.

Pirámides de población. 1996-1991-1986 | Gráfico **3.3.3** **Grafikoa** | **Biztanleri piramideak. 1996-1991-1986**






## **EAE** / C.A.E. 1986




En el Gráfico 3.3.3 presentamos las pirámides de población de la C.A.E. de 1986, 1991 y 1996, en las que se puede ver cómo la caída de la natalidad ha reducido drásticamente la base, cómo las generaciones de los años 60 y 70 ocupan la parte central produciendo un abombamiento, marcando el efecto de adultez o plenitud que señalábamos arriba, y cómo, aún de una forma no muy marcada, la pirámide empieza a crecer en la cúspide con las generaciones de principios de siglo.

Este efecto será más visible cuando empiecen a llegar a los 80 años las generaciones previas a la guerra civil, las de los años 20 y comienzos de los 30.

Si analizamos la estructura por edad desde el punto de vista espacial, vemos que Álava se distancia de los otros dos territorios apareciendo como el territorio menos envejecido, ya que tiene algo más de un punto porcentual de población joven y dos puntos menos de personas de 65 y más años.

Por comarcas, la Montaña Alavesa, con un 28,6% de 65 y más años, y los Valles Alaveses con un 25,2%, presentan el índice de envejecimiento más alto –frente a un 12 y 13,5% de jóvenes respectivamente–.

En la Rioja Alavesa, las Encartaciones, Arratia-Nervión y Gernika-Bermeo, una de cada cinco personas tiene 65 o más años.

La Cantábrica Alavesa, el Duranguesado, la Llanada Alavesa y Plentzia-Mungia consiguen rebajar en dos puntos la cifra de personas mayores, constituyéndose en las comarcas más jóvenes de la C.A.E.

3.3.3 grafikoan, EAEko biztanleriaren 1986ko, 1991ko eta 1996ko piramideak aurkezten ditugu; piramide horietan ikus dezakegu nola jaiotzen jaisteak errotik moztu duen oinarria, nola 60 eta 70 urteetako belaunaldiek betetzen duten piramidearen erdiko aldea –hori dela eta, piramidea sabelduta agertzen da, arestian aipatu dugun heldutasun- edo betetasun-eragina markatuz–, eta nola piramidearen erpina, oso nabarmen ez bada ere, hazten hasi den mende hasierako belaunaldiekin.

Eragin hori ageriago geratuko da, gerra zibilaren aurreko belaunaldiak (20 urteetakoak eta 30 hasierakoak) 80 urteetara iristen hasten direnean.

Adinkako egitura lurraldearen ikuspegitik aztertzen badugu, ikusiko dugu Araba urrundu egin dela beste bi lurraldeetatik, eta hori dela zahartzapen-maila txikieneko lurraldea: Araban, biztanle gazteen proportzioa beste lurraldeetan baino handiagoa da (puntu bat); 65 urte eta gehiagokoena, berriz, txikiagoa (bi puntu).

Eskualdeka, zahartzapen-mailarik handiena Arabako Mendialdeak (65 urte eta gehiagokoen %28,6) eta Arabako Ibarrek (%25,2) izan dute; gazteak, aldiz, %12 eta %13,5 baino ez dira.

Errioxa Arabarrean, Enkartazioetan, Arratia-Nerbioin eta Gernika-Bermeon, bostetik bat 65 urte eta gehiagokoa da.

Kantauri Arabarrean, Durangaldean, Arabako Lautadan eta Plentzia-Mungian, bi puntu txikiagoa da zaharren kopurua, eta horiek dira, hain zuzen, EAEko eskualderik gazteenak.

Si nos detenemos en las capitales, podemos apreciar en el Gráfico 3.3.4 cómo Vitoria-Gasteiz se distancia de las otras dos por su grado de juventud; frente al 19,4% de jóvenes de Donostia-San Sebastián y el 18,8% de Bilbao, la capital de la C.A.E. posee un 22,3%. Frente a casi el 18% de mayores de 64 años de las dos primeras, Vitoria-Gasteiz solo tiene un 13%.

Hiriburuei dagokienez, 3.3.4. grafikoan ikus dezakegu nola Vitoria-Gasteiz beste bi hiriburuetatik urrundu den, gaztetasun-mailari dagokionez: EAEko hiriburuak %22,3ko maila du; Donostiak, %19,4koa, eta Bilbo, %18,8koa. Beste bi hiriburuetan, 64 urtetik gorakoak %18 dira; Vitoria-Gasteizen, ordea, %13 baino ez.

Pirámides de población de las capitales de los Territorios Históricos comparadas con la de la C.A. de Euskadi

Gráfico **3.3.4 Grafikoa**

**Lurralde historikoetako hiriburuen biztanleri piramideak Euskal AEkoaren aldean**

Bilbao. 1996




Donostia-San Sebastián. 1996



## Vitoria-Gasteiz. 1996




A pesar de que la caída de la natalidad afecta de una forma muy similar a las pirámides de las tres capitales, Vitoria-Gasteiz tiene generaciones jóvenes e intermedias proporcionalmente mayores, debido en gran medida al mantenimiento de saldos migratorios positivos.

Nahiz eta jaiotze-tasak eragin berdintsua izan duen hiru hiriburuetako piramideetan, Vitoria-Gasteizko belaunaldi gazteak eta bitartekoak handiagoak dira, batez ere, migrazio-saldo positiboei eutsi dielako Arabako hiriburuak.

Población de 65 y más años por municipio
1996 (%)

Mapa **3.3.1 Mapa**

**65 urte eta gehiagoko biztanleria udalerrika 1996 (%)**



Evolución del índice de masculinidad por edad. 1981-1996.

Gráfico **3.3.5 Grafikoa**

**Gizonezkotasun-indizearen bilakaera adinka. 1981-1996.**




Con respecto al sexo y la edad cabe decir que de 0 a 19 años tenemos 11.000 varones más que mujeres –un 5%– efecto del mayor nacimiento de varones –105 por cada 100 mujeres por término medio–. En 1991 la diferencia era de 14.500, con lo que si consideramos que la mortalidad diferencial masculina a esas edades (ligeramente mayor) no ha variado, tendríamos que pensar en disminuciones por efectos migratorios.

Sexuari eta adinari dagokionez, honako hau aipatu behar da: 0tik 19 urtera, emakumezkoak baino 11.000 gizonezko gehiago ditugu (%5), gizonezkoen jaiotze gehiago daudelako (105 batez beste emakumezko bakoitzeko). 1991n, aldea 14.500ekoa zen; beraz, kontuan hartzen badugu adin horietako gizonezkoen hiltze-tasa diferentzialak (zertxobait handiagoak) ez direla aldatu, pentsatu beharko dugu gutxitze horiek migrazioek eragin dituztela.

Índice de masculinidad por municipio. 1996.

Mapa **3.3.2 Mapa**

**Gizonezkotasun-indizea udalerrika. 1996.**



De 20 a 64 existe una pequeña diferencia positiva de 2.600 varones, mientras que de 65 y más años tenemos 58.000 mujeres más (un 45%), producto de la mortalidad diferencial. En la C.A. de Euskadi la esperanza de vida masculina en 1997 llegaba a los 74,3 años, mientras que para las mujeres era de 82,6, diferencia que explica la sobrerepresentación femenina en la pirámide poblacional.

20tik 64ra, gizonezkoen alde positiboa oso txikia da (2.600); 65 urte eta gehiagokoen artean, berriz, 58.000 emakumezko gehiago ditugu (%45), hiltze-tasa diferentzialen eraginez. Euskal AEn 1997an, gizonezkoen bizi-itxaropena 74,3 urtetara iristen zen; emakumeena, berriz, 82,6koa zen. Alde horrek azaltzen du, hain zuzen, emakumezkoen biztanleri piramidean duten gainordezkapena.